

DIRU SARRERAK

Honelako bizikletak erosteko, inbertsio handia egitea ezinbestekoa da. Hasiera batean, gastu guztiak ordaindu ahal izateko, mailegu bat eskatu beharra dago. Gainera, Beste enprekin lanean gaudenez, beraien diru iturriak ere kontuan hartu beharra daude. Gastu horiek alde batera utzita, baditugu hainbat diru sarrera sail ezberdinen bitartez eskuratuak.

Behin enpresaren funtzionamendua abian jarrita, bazkideak diren bezeroen kuota jasoko genuke, baita etortzen diren bezeroen sarrerak ere.

Unibertsitateetako erresidentziak babestuko gaituztenez, bertan egoten diren gazteei hainbat beherapen eskainiko dizkiegu.

Udaletxeekin eta Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarriko gara, diru laguntzak eskuratzeko helburuarekin. Gure zerbitzua, berritzailea eta ingurumenarekin lagungarria denez, toki ezberdinetako jende ugari laguntzeko prest azaltzen da, etorkizun batean BiziClean bezalako lan gehiago egoteko.